

FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Lehenik eta behin, aplikazioa ahalik eta txukunen gauzatu behar dugu: erabiltzeko erraza, xehetasun guztiekin, elebiduna, etab. Horrela, ahalik eta erabiltzaile gehien izatea lortu nahi dugu, gure aplikazioa ondo finantzatzeko eta beharrezko diru-sarrerak izateko.

Horretaz gain, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure aplikazioak iragarki onak izatea eta sare sozialetan ikusgarritasun handia izatea. Horregatik, TikTok eta Instagramen tankerako doaineko sare sozialetan enpresaren profila sortzea eta bertan gure aplikazioari ikusgarritasuna ematea pentsatu dugu: "story"-ak, publikazioak, bideoak, etab. igoko ditugu ahalik eta jende gehien ikus ditzan.

Gainera, esan bezala, hainbat influencer-ekin hitz egingo dugu haiekin kolaborazioak egitekotan. Influencerrak eta pertsonaia famatuek duten eraginagatik uste dugu haiek direla gure baliabiderik eraginkorrena bezero berriak geureganatzeko. Beraz, inbertsio garrantzitsua egiteko asmoa dugu haien inguruan.